

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

196n. zenbakia / orrilla/maiatza
1995



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE**



ESTEBAN URKIAGA "LAUAXETA"
(1905 - 1937)

- OLERKARI SUTSUA
- ABERTZALE BEROA
- KRISTIÑAU ZINTZOA

ARANTZAZU'ko BATZARRA TA ATXEA

Noizean bein, eta sarritan, eltzen jakuz argazkiz ugaritutako agirien iekiak eta aspaldion darabilt idazpuruak iragarten dauan gai oneri buruz olako bat ZER'en agiritegian. Irakurleentzat jakingarria dala-koan idazki orren laburpena ta egoikitze-lana egingo dot.

Euskaltzaindiak Leioa'n egin eban XIII batzar nagusian "Euskera Batuaren Filosofia" idazpuru eban itzaldi bat egin eban Luis Villasante'k. Itzaldi orren une baten h'ak Arantzazu'n sortu eban nastea gogoratu eta aztertu eban izlariak.

Izki isil edo mutu orrek sortu eban Arantzazu' n nas-terik aundiena, naizta Mitxelenak aurkeztu ebar agi-rian ain garrantzitsua izan ez arazoa.

Mitxelenak Arantzazu'ra joan baiño lenago batzar bat egin ei eban Donostia' n ango euskalzale batzuk eta bera h'aren alde agertuko zala Arantzazu'n esan eutsen. Laster zabaldu zan barria eta izki orren arerioak aurka jokatzeko gertu agertu ziran.

Arerio ziranak jokabide bat gertatu eben: al ba'da, itzi ez gaia batzarrean aztertzen, astirik ez egoalako edo beste agiri batzuk be irakurri bear ziralako, eta ori ezin lortu izan ezkeru, aurrez-aurre ekin h'aren aurka.

Zer nai ete eban Mitxelenak arazo ori aurretiaz ira-garriaz?

Gaia plazaratzea, zalantza barik, eta bein baten atxea bai ala atxea ez eztabaidak amaitu.

Beste elburu bat be izan eikean: naste aundi bat sortu gizartean, orrelan alde batetik eta bestetik ziran zioak argitaratzeko eta euskaldun geiago euskereari buruz arduratuta ikusteko. Lortu be egin eban ori. Eta gaur orduan baiño be biziago dago arazoa.

* * *

Eldu zan batzar eguna eta uste eban lez jazo ziran gauzak: Agiria irakurten asi zanerako, mai-burutik gel-ditzeko agindua artu eban, beste arazo batzuk be azter-tu bear ziralako. Koldo'k erantzun zorrotza emon eban: Bere gai au egitarauan egoala eta besteak ez, eta berak jarraitzeko eskubidea eukala. Jarraitu egin eban eta amaitu be bai.

Orduan, aurretiaz erabagita egoan lez, arerioak sen-do erantzun eutsoen eta eztabaida gogorra sortu zan. Egoaldeko euskaldunak ez ekien atxea noiz erabilli eta

non sartu. Iparraldekoak izki ori erabilten ba'ekien, baiña geiegi sartzen ebalako ustea egoan.

Orduan iparraldeko euskalduna dan Pierre Lafitte idazle ospetsuak egin eban berba eta euren euskerea galtzera doala eta euren idazkerari ez oratzeko eskatu eban. Urpera doan itxas-ontzira iñor sartzen ez dan an-tzera. Eurak Iparraldean erabilten jarraituko eben, bai-ña ainbeste naste sortzen dauan iskia oba ez artu egoal-dean.

Zelan artu zan batzar aretan Laffite'ren aolkua?

Erantzuna iñok uste ez ebana izan zan: Iparraldeko euskaldun gizajoak be euskaldunak dirala, geu lez, eta euren euskerea be artu egin bear zala bizirik aurrera ateratzeko. Eta geienak h'aren alde jarri ei ziran.

Zori txarrez iñoz artu bear izan ez zan h'a erruki utsez artu zan eta izkuntzaren legeak eta erabilteko bear dan erreztasunak debekatzen dauana, bioz bigu-nak baieztu eban.

Ona da erukia eta guztiz ona iparraldeko anaiak aintzat artzea, baiña lenagoko gauzea da euskerea bide onetik aurrera eroatea. Orregaitik, erabagiak zuzentze-ko iñoz berandu ez dan lez, burruka au aurrera doala eta joango dala ikusirik, eldu dala uste dogu euskeratik atxea alboratzeko ordua. Erabilli dagiela iparraldeko euskaldunak bear daben eta onurragarri jaken neurrian, baiña itzi daiskueta egoaldekoai geure euskerea erreza-go biurtzen.

Nok kendu bear dauan euskerearen idazkeratik h'a?

Ba, ipiñi dauanak berak eta gero idazle guztiak.

Mesede aundi bat egingo dautsagu euskereari bide ori artzen ba'dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek



EUSKERAZ ALKAR ULERTZEN

Euskaldunak euskeraz alkar ulertzea, gauza ederra ta bearrezkoa da, baiña, izkuntza guztiak dauken lez, euske-reak be izkelkiak edo, gure onetan, euskalkiak daukaz eta ortik sortzen da, euskeran eta beste izkuntza guztietan alkar ulertzeko gaiztasuna.

Antxiña latinez danak ulertzen ziran Erroma'ko agin-terrian, baiña toki bakoitxean era batera latin berba egi-ten asi ziranean, alkar ulertzea gauza gaitxa zan. Kordo-ba'ko semea zan Agintari Nagusiaren izkera ez zan erromatarrentzat ezaguna, latíña izan arren, barre egiten eutsoen.

Euskereak oiñarri bat edo enbor bat dauka eta ortik esan geinke izkuntza bat dala, baiña enbor orren inguruan adar asko sortu dira, batzuk aundiagoak enborretik urriña-go doazenak eta beste batzuk txikiagoak, enborretik ura-go dagozenak. Ez litzake gauza erreza, enborra bera non dagoan edo zein dan jakitea.

* , *

Galdera bat: Gastelera ta Katalaunerea alkarregandik ala bizkaiera gipuzkoeratik dago urriñago? Nik uste dot gure euskalkiak alkarregandik urriñago dagozela latinku-meak alkarragandik baiño.

Alkar ulertzen dira gastelarrak eta galziarrak edo katalauniarrak? Nik baietz esango neuke. Gaiztasun apur bat izan arren.

Alkar ulertzen dabe gipuzkoarrak eta bizkaitarrak? Egunero alkar ulertzen dogu eta baietz esan bear, baiña berezitu daiguzan gauzak.

Norberaren euskalkia landu ez danean, ez da ondo ulertzen besteena. Guk bizkaiera ondo landu ez ba'dogu, ez dogu ulertzen gupuzkoerea, eta alderantziz. Baiña bizkaiera landu ezkeru, errez ulertzen da gipuzkoerea.

Apur bat gatxagoa da lapurditarrai edo zuberotarrai ulertzea, baiña asko laguntzen dau norberaren euskalkia ondo jakiteak.

Euskera batuak iñori ez dautso laguntzen alkar ulertze-ko, alkar ulertze ori gatxago biurtzen dau. Lengoak geiegi zirala. eukalki barri bat sortu dauskue.

Oraintsu Naparroa'ko Erri-Ikastetxe Nagusian itaun au egin euskuen: Zen euskalki ikasi bear dau euskerarik egi-ten ez dan Araba'ko erri baten bizi danak? Edo Barakal-do'n bizi danak?

Erantzuna erreza da. Urren dagoan euskalkia. Araia-aldean bizi danak gipuzkera, Legutiano-aldean, bizi

danak bizkaiera, Laudio'n bizi danak bizkaiera. Orrelan nogaz berba egin be aurkituko dau urrean.

Batua ikasten dauanak ez dau aurkituko nogaz itz egin, ikastegiko lagunakaz izan ezik, eta izkuntza ez da ori, laborategia baiño.

Zein euskera erabilli Euskalerrri osoarentzat berba egi-ten danean: ETB'n, irratietan, Ikastetxe Nagusian...?

Itz egiten dauanak berea, baiña landua, apaindua, bear ba'da esan al izan leiteke erri-maillakao batua, bizkaitar-rak Bizkai'koa, giputzak Gipuzkoakoa, eta abar. Eta idazkeran bardin. Orrelan egin ezkeru, epe labur baten lortuko dogu guztiok alkar ulertzea. Ori ikusi egiten dogu geure batzarretan. Ori orrelan gertatzen da eta ez da iza-ten ezelako eragozpenik alkar ulertzeko.

Iruña'ko Ikastetxe Nagusian izan genduan batzar are-tan euskalki guztietakoak izan ziran entzuleak eta guztiak ulertu eben esaten zana. Iñoz ulertzen ez ba'zan, abots-aundi-gailluak ondo ez egozalako zan, baiña ez euskal-kiagaitik. Beti gaiztasun apur bat baiña ez alkar ulertu eziñik. Eun entzule ziran.

Orduan, baturik egingo ete da iñoz?

Ez da gauza erreza gerokoen barria jakitea, baiña ara-zoa aztertu ezkeru, baietz esan lei, batua etorriko dala.

Zergaitik?

Euskaldunak antxiñatik diardugu batua egiten: Bizkai-tarrak gipuzkoeraz idatzi dabe eta alderantziz, betsolariak Bizkaia'n gipuzkerara jo izan dabe, eleizetako izlariak be antzera: ba-dagoz erri batzuk mugan dagozenak edo euren euskalkiak eskatzen dauan erkian bizi ez diranak (Bergara'n esasterako bizkaieraz egiten da). Ortik etorren, astiro, batuaren bidea.

Gaur gaiñera euskalki ezbaridiñak darabiltzen euskal-dunak artu-emon aundiak daukez, lenago baiño askoz geiago: ETB, Ikastetxe Nagusia. irratiak, liburuak... eta artu emon ugariago oneik baturantza bultz egiten dabe.

Baiña ez dagigun aitzu Menendez Pidal izkuntzalari ospetsu eta euskerearen zale zanak esaten ebana: Batua landara baten antzekoa da. Landarea ba-dator gora ta gora eta guk ez dogu besterik egin bear ongarría ondon ipiñi, okertu ez daiten burdin-ari bategaz lotu, ureztatu... baiña ez ekin orrietatik tiraka, ariñago azi daiten. Kalte egingo dautsagu eta bear ba'da il egingo dogu.

INDIA'KO BARRIAK

Tolosa'ko nire lagun Aita Frantzisko Zubeldia joan dan udan Loiola'n egon zan, emen neugaz egun batzuk igaroten...

India'ra barriz joan eta ango barriak bialtzen deustaz:

"Ni bizi nazan SURAT uria Arabia'ko itsasora begira dagoan kaia da.

Surat izenak emengo izkuntzan "garbia" esan gura dau, baina ori ez da egia, uririk zikinena dalako. Bizileku oneko rain 30 urte 600 mila bizilagun zituan, eta gaur 2 miliotik gora ditu... Uri onek ur zikinak lurpetik eroateko "drenajerik" ez dauka, eta orregaitik kale bazterrak usain txarrez naskagarri dagoz.

Azken uriolean 10.000 etxe-abere itota il ziran, eta garaiz erre ez ebezalako izurrite ilkorra alde guztietan zabaldu zan: birietako gatxa, sukarrak, larrialdiak... baita ilak ere.

Lenengo egunetan 300.000 lagunek bildurtuta uritik alde egin eben, baita osagileak ere. Jendeak asarrez geisoetxeak eta klinikak itxita egozalako erre egin ebazan...

Orain izurritea gitxitu egin dala emoten dau, eta jendea bakotxa bere etxera etorten asi da... Eskolak beintzat zabalik dagoz.

Guk, misiolariok, geisoen artean osagarriak eta janariak banatzen lan andia egin dogu...

"Bubonika" izurriteaz kutsatuta egozan eunen bat geisok, euren geiso-etxetik iges egin dabe, eta inguruko errietan euren geisotasuna zabaltzen asi dira...

Eta Aita Pablo Gil neure beste lagun naparrak idazten deust:

"India'ko lurralde zabal onetan 900 milioi bizi gara... Eta ni GUJERAT izeneko estaduan nago...

Bagilean MONZON uriolak gure ganera etorriko dira. MONZON ekatx ori emen pozez eta bildurrez artzen dogu... Pozez, urte guztirako naiko urik eukiko dogulako. Bildurrez, ibaiak ganezka egin eta dana ondatuko dabelako.

Joan dan urtean, NARMADA ibaiak -India'ko andienetakoa- 9 metro bere neurritik gora egin eban,

eta 617 izan ziran ildakoak, eta 800.000 euren etxeak eta ondasunak galdu ebezanak.

Au da MONZONen alde negargarria, baina beste aldetik, landa egarrituak euria edanez lorez erneten dira, lurpeko urtegiak urez beteten, eta soloak uzta emonkorrez aberasten... Izadi guztia poz eta atseginez loratzen da...

Beste aldetik, KHANBAHT urian ikastetxe eder bat jaso dogu. Obeto esateko ia amaitu dogu. Len-go txikia zan... Datorren ikastarorako zabalduko dogu...

BHAL izeneko gure beste ikastetxeak mutil-neskentzat barnetegi edo internado bat dauka... Baina guk gitxien uste dogunean ikasleak euren etxeetara iges egiten dabe... Irugarren aldiz iges egiten dabenak ez doguz geiago artzen... Aurten iges egindakoak gitxiago dira...

Gurasoak euren umeentzat eskolaren bearra sentitzen asi dirala, uste dot.

Goikoetxea'tar Iñaki S.J.



B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

MARI KARMEN GARMENDIA ETA ELE IRUKOITZA

(DEIA. 17-11I-1995. Cultura/57)

Mari Karmen'ek Tolosa'n esandakoak, aldizkari onek dionez, auek dira: "La sociedad tiene que asumir la diversidad pues es un valor enriquecedor, y en última instancia imprescindible para que los ciudadanos vivan en armonía".

Orrela mintzatu dala dirudi, erderaz alegia, ele irukoitzari buruz: Euskera, erdera eta frantzeraz bearrezkoak dirala Euskal errian. Orretan, ni beintzat, "a dos" eta "a uno" nator, emen, Euskadi'n, bizi geranok alkar ulertuko ba' degu.

Gañera kontu izan bear dogu, erdera geure aonetatik sortua dala ("el castellano es el latín hablado por los vascos"), eta geure arbasoen lana onartzeak badu bere arrazoibidea. Alaz ere, ori aldamen batera utzi nai det.

Aurrerago onela dio: "El proyecto que queremos sacar adelante en Euskal Herria esta fundado en el respeto hacia los otros y en la solidaridad con todos...". Erderaz esan dituela dirudi eta nik ez det "traduttore traditore" izan nai eta orregaitik dakarzkite erderaz esan diran bezela.

Begirune eta errespeto ori nai nuke nik Euskerari buruz, erdera eta frantzesari buruzko neurrian... Eta, "guztienganako solidaritza" ori, Euskerarenganako ere bai. Erdaldun eta frantzezduen oiek baño gutxiago al gera, Batua onartzen ez degun euskaldunok?

Ez da guztia or amaitzen; aurrerago ere badoa: "La Consejera también se refirió al peligro cierto de confundir universalidad con uniformidad de la cultura, que deben ser diferenciadas, pues la primera



fomenta la riqueza de las culturas y la segunda las constriñe".

Ez dakit berak orrela esan dituenik; baña, alaz ere, gauzatxo bat esan gabe ez naiz geldituko eta auxe da: Esanaldi orretan, "cultura" dion tokian, Euskera (kulturaren agerpenik ederrena) ipintzen ba'dogu, esaten ari zaigu Mari Karmen, Euskera guztiak artzea, osasungarria dala, eta Batua indarrez ezartzea, ori, kaltegarri. Bajon deizula, emakume.

Bartolo Arropain'go

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

EUTSI DAI OGUN ERRI-EUSKERARI

ERRI-EUSKEREAREN EGOEREA

Gaur egun, erri-euskera egoera larrian, ia, ia, il zorian eurkitzen dala, gauza jakina da. Ikusi baiño ez dago orregaz oartu egiteko.

Mailla guztietan: mezu-bideetan, ikasketetan edo iragarkietan, batzuk aitatzearen, "el batua" dalakoa agiri da jaun da jabe. Alde guztietatik laguntza aundi, oparoak bereganatzen dauz: Aldundiak, Udaletxeak eta Euskalerriko Jaurilaritzak diru kopuru izugarriak erabilten dabez berari laguntzeko; erri-euskera, jatorra, ostera, bazterrean, txokan, estalduta, ostenduta bezela eta laguntza urriak jasoten geratzen dalarik. Eta, tamalez, ez dau emoten egoera illun onek aldatzeko itxura dauarik.

* * *

EGITEN DANA

Siñisteziña da, ludi edo mundu guztiko izkuntzalarriak miresten daben geure izkuntza oneri gertatzen jakona. Iñun egiten ez dana, emen egiten ari da. Bearbada, gaiñontzekoak baiño jakintsuagoak garealako ete da?

Atzeruntz begiratzen baldin ba dogu, konturatuko gara batuzaleak Euskaltzaindia artu ebenetik gauzak geroago eta okerrago joan dirala euskera errikoia izentzako eta, orren ondorio bezela, bera aldeztuten dabenentzako be.

ARERIOAK

"EI Batua"ren aldekoak, Euskaltzaindia euren eskuetan ebela, lortuta egoan euskeraren benetako batasuna, Azkue aundiaren GIPUZKERA OSOTUA, alegia, kendu eta, bere orde, euren "batasuna" ezarri eben... indarrez eta azpikeriz (On Manuel Lekuonari egin eutsoena "jakintsu" barri orre in jokeraren adibide argia da).

Ordu ezkerotik, urte askotxo igaro dira eta gauzak aldatu diranik ez dago esaterik, "el batua" deritxonak nagusi jarraitzen daualako, berari aurre egin leikion guztia zapaltzen dauala.

Euskaltzaindia, gaurkoa, ez Azkuek eta beste euskaltzale aundi areik sortutakoa, batuzaleen esanetara dagonez bere babespen osoa eskeintzen dautsa askaketa barri oneri, belaunaldiz belaunaldi gure egunetara eldu jakun erri-euskerari jaramonik egin barik.

EMOITZAK ETA EUSKALKIAK

Gizakia bere emoitzaik ezagutzen baldin ba da, Euskaltzaindia guztiz ezagutua dogula esan lei. Bere erabakia argi dago: "el batua" bakarrik onartuko dau eta ortik at... ezereza.

Era orretan, euskeraren gorputz eta arima diran euskalkiak zeatz eta meatz, sakontasunez, aztertu bearrean, onein berezitasun aberasgarriak ikasi eta zabaldu bearrean, kanpora, erdal izkuntzetara joan egin jaku aitaturako "Akademia" ori.

ERDEL-ITZAK

Beraz, ez da arritzekoa, gure mintzo ederra erdal itzez josita ikustea. Frantzieratik zein españeratik makiña bat itz kanpotar sartu dauskuez. Eta orren adibide bezela, ementxe doguz batzuk: "espero", "independentzia", "presidente", "konpetentzia", "asanblada", "greba", "xarmangarria", "proposamena", "proposatu"... eta abar luze bat.

Olan jarraitu ezker, euskera ez eze, españera eta frantziara be ondo baiño obeto jakin bearko doguz batuzaleak idazten edo esaten dabena ulergarriago egin dakigun. Au da au!!

JOSKEREA

Dana dala, "el batua"-k ekarri dauskun naste borras-te ori orretan bakarrik geratu izan ba litz... gaitz-erdi. Baiña, leku ederrean!!! Ori gitxi ba litz, joskera bera be erderatzen dabilkiguz eta auxe bai dala albiste larri eta kezkarria, benetan.

Erdal itzak, arrotzak, kanpokoak, zuzendu eta kendu

egin daitekez. Baita, "h" izki ospetsua be. Orrek konponbide erreza dau, borondate on apur batez. Baiña, euskal joskera, geure izkuntzaren oiñarrizko euskarria dala esan leitekena, erderatu ezkeru. Zelan arteztu edo zuzenduko litzake ori?

* * *

OKERRAK ZUZENDU

Kontuan artu bearrekoa da euskal joskera erderatueran, euskera ikasten ari diranei ez jakela euskeraz pentsatuaz egiten, erdera utsez baiño. Eta erderaz pentsatu eta oldoztu ezkeru, euskerarenak egin dau. Ortik urtengo leukena ez litzakelako euskerarik izango, euskal itzez moztutako erdera baiño.

Euskaltzaindia-ko gizon "aundi" orreik jabetzen ete dira gaiaren larritasunez? Oker egotea atsegin izango litzakit, baiña ez dot uste euren errege aukietatik jeixteko asmoz dagozanik euskerearen egiazko egoera ikusteko.

Edozelan be, gauzak txarto dagozan arren, nik ez dot uste berandu danik egiñiko okerrak eta utsak zuzentzeko.

BARRURA BEGIRA

Kanpora, erderara begiratu barik, barrura, euskerearen barrukaldera begiratu bearco gendukela uste dot. Euskerak ditun euskalkietan gauza berezi eta arrigarri ugari aurkitu geinkez-eta: oiturak, ekanduak, esaerak, atsotitzak, izkera ezbaridiñak... eta abar. Danak artu eta baturik euskera bera osotu eta aberastu egiten dabe. Eurak ditualako bere sorburua gure berbeta arrigarri onek.

Euskalkietan bizi dan erri-euskeran datza gurre izkuntzaren geroa. Bizia dalako, gizaldiz-gizaldi igaro egin dalako gurasoengandik seme-alabengana. Berezkoa dalako, labur esanda.

"EI batua", ostera, asmatuiko gauza bat baiño ez da. Ezelango tradiziño barik erdal izkuntzetan oiñarrituta. Ori dala-ta, Euskaltzaindiak eta bere batuzaleak ekiten ba dautsoe euren jokabide setatsu eta oker orre-ri, mesede makala egingo dautsoe euskereari.

IÑOR BAZTERTU BARIK

Euskalkiak edo gauza bera dana, erri-euskera ilten lagatea euskerari bere sustraiak kentzea litzake eta sus-

trairik bako landarea igartu eta ilten dan antzera, euskalkirik bako euskera be ilgo litzake eta orduan azaluseri utsa izango lirake negarrak eta atsekabeak.

Erri-euskerak, baiña, ba ditu bere aldezele eta jarraitzailleak, zorionez. Eta, batez be, Akademia edo eleetxe bat: EUSKERAZAINTZA-EUSKERAREN ERRI AKADEMIA, ain zuzen. Onen kezka eta ardura bizia erri-euskera babestu eta salbatzea da eta orretarako alegin guztiak egiten dauz al dauan neurrian.

Baiña, gorago esan dogun lez, Euskaltzaindia eta bere jarraitzailleentzako "el batua"-tik kanpo ezer ez dagonez, EUSKERAZAINTZA baztertuta geratzen da eta bere baliabideak oso urriak dira. Estu eta larri dabil eta orregaitik gure laguntzaren bearra dauka. Ezinbestekoa jako. 11 ala bizikoa, gaiñeratuko neuke nik.

* * *

ERRI-EUSKERA

Ondorioz, nire asmo-agertze edo proposiziñoia auxe izango litzake: EUSKERAZAINTZA-ren alde gure indar guztiak batu, oizkoa dogun zabarkeria aldendu eta jo ta su lanari ekitea. Erri-euskera zabalduz: idazten eta, batez be, mintzatuz. Zenbat eta geiago izan, indar geiago izango dabe erri-euskerak, onen zaintzaille eta babesle dan EUSKERAZAINTZA-k, eta, azken baten, EUSKERA, gure altxor parebakoak.

Amaiera bezela, auxe gogoratu bear: Erri-euskera dala euskera, gure izkuntza ederra, bere egoera latz orretatik atara leiken bakarra, bere sustraietatik, bere barrutik. Iñundik iñora, kanpotik.

Alegin guztiak egin bear doguz, beraz, euskerari eusten. Eta ori lortzeko, erri-euskera dogu bidea.

MALAX-ETXEBARRIA TAR YON



ARGIUNEAK

BADATOS LENENGO JAUNARTZEAK

Badatuz Lenengo Jaunartzeak eta asi dira (DEIA IGANDEA 12-III-1995) sekulakoak esaten:

Umetxo Jaunartzalle oneik Printze Txikien antzeko omen dira eta printze-antzerantz jantzen dabez, umearen irudimena zoratzeko eran.

Tulezko jantzi zuri zoragarriak neskearentzat; mutillarentzat, berriz, gizaki nagusienak, batez be, gerra-ontzietako almirantearenak. Onek ei dira maiteen dabezenak.

Zeaztasunak ugari soin-ingurua edertzeko; urrezko gurutze bere galartsu edo kordoi borobillakin; nakarrezko liburutxoa, errosario polita eta guante zuriak... Kandela bat eskuetan, besterik ez zake falta, burua naastezko.

Zertarako bear dabiez nakarrezko liburutxoa, errezatzen ez dakien errosarioa, guante zuriak eta urrezko kordoiak...?



Burua naastu eta zer egitera doazen aastutzeko; besterarako ezer be ez.

Neskatoentzako lorak eskuetan eta buruan; ule-matasak apainduta kiskurrez eta luze; artisten irudira...

Gañera, ondo jan eta edateko eguna ei da. Maia ona eta ugarria, ezkontzetakoen neurria... Dantza falta... Ala, ba alda dantza be...?

Aizkenean (asieran eta erdian) argazkiak eta bideoak...

Ainbeste arazoetan, Jauna artu bear dabiela, aaztu... Zoro-garri (ez det esan "zora-garri").

Urteetan zearko burrukan, lortu genduan apaltasun apur bat eta mojen-antzeko soñeko zuriak lortu ere bai. Nun ote dira? Gaur egun estratosferara igota gabiltza... Plasta, aundiago.

Bartolo Arropaingo



EUSKERAREN JATASUNA

"Tolerantzia" onartuzeko
egin bearco alegiñ?
Euskerak ba dau eroapena,
jasatasuna be, bardiñ;
jasan, eroan iñoren berbak
geureak galdu eragiñ;
noiz arte jasan bearco
orrenbeste buru ariñ?
Jasatasuna, maitasun barik,
Euskeraren eriotz-miñ.

Euskera dogu bere sustraitik
izkuntza zaar, garbia,
iztegi sakon, gozo-gozotik
dario iturri bizia,
agortu daigun oso osorik
bere ur-begi joea;
Euskerak ba dau bere izkera
sorburutik etorria,
zanga ta zanga edan dagigun
bere ardo zar, gorria.

Itzari eutsi, esan oi dogu
gure artean sarritan,
euskera berba bakoitzari
eutsi ziñez ta benetan;
geureak diran itz
sustraituak
zaindu toki guztietan;
gogoz ikasi gure Euskera
bere mamiñ-mamiñetan;
besteen berbak bear ezker
betoz gurera azkenean.

Bide bat dago alkar aitzeko:
gogoz ikasi izkuntzak.
Iñork ez ditu iñoiz galduko
bere izate ta moduak;
gure Euskerak ez bediz galdu
bere euskalki jatorrak.
Gaurko joera bide erreza da
eta jokera lasaiak.
Euskerea ez ikastearren
jo ta jo erderakadak.

Peru aldetik entzuten oi dot
España'ko irratia,
arratsaldetan egaz datorkit
Euskeraz mintzo-aldia;
Euskera naasi ori entzunaz
artzen dot lotsa gorria,
gure Euskerak berez izanik
esakera berezia,
erderatik, berbeta makurrez,
artzen dabe esabidea.

Esperantoa asmatu zala
badira ainbat urteak,
izkuntz naaste bat egiñ nai
eben
orduko ameslariak;
Euskerantoa egiñ nai dabe
gaurko euskaldun "barriak",
naaste orrekiñ agertu dira
mordoilokeri gorriak,
oker bidetik doaz gaur egun
gure Euskeraren etsaiak.

;;;EUSKALDUNAK!!!

Aberriaren sena
asmatu ba'leikide
irudimen garrak...!
Euzkotarrean izarra
ikusi al ba'leiste
nere gogo zarrak...!

Illezkor zaran enda,
otsoak ezin austu
zure gogo indarra.
Egiaz zagoz, zutik,
Aberriak damotsu
gizontasun garra.

Erri onen bizitzan
urteak aztu ziran
askatasunean;
gero, etsaiak il nai,
baña zure gogoa
bizi zan barnean.

Bakean eta gudan,
ernai, ikusi zaitut
gizontasunetan;
berez, bake zalea...
guda oiñean gogor,
zure eskubidetan.

Onoimen ederrenak,
beti, jazo zaitue
Aizkorritik gora;
ariman daroazu
egiak daukan ziña
gizonen gogora.

Zure itza bakarra zan,
egi garra erion
biotz ezpaneana;
iñor ez zendun saltzen
gizon gaiztakerien
maltzurkerietan.

Lanak ez dau bildurtu
euskaldunen gogoa
baserri zarrean;
ardiak eta beiak,
are, alper ta goldak
lagun zitunean.

Baserrietako olak
tximimidun lantegi
biurtzera doaz;
aurrera doa, ernai,
Euskalerra osoa
lanaren gogoaz.

Jakintza ta fedea,
biziaren eusgarri,
daroaz gogoan;
ortxe, izango poza,
maitasunaren bidez
geroko geroan.

Paulin



ZERGAITIK EZ ZUTEN LOIOLA'KO INIGO URKATU...

(2n. SARIA)

Azpeiti'ko errian dabil bertsolaria bertso-paperak kantari:

Gazteluko Beltran jauna, emaztea aurdun lagata,
Andaluzia'ra doa armatan, mairuak Granada'tik
botatzeko asmotan.

Azken-muturretik itxasora bota bear dira guztiak
askatasuna izan dezan Kristau-erriak.

Trankatan-trankatan Gaztela 'tik zear
Loiola'ko gudariak aurrera doaz
Hispania osoa askatzera
zortzireun urteko gerrari azkena
ematera.

Loiola 'ko dorre ederrean jaio berriaren negarra.
Eñeko nai zuen izena aitak baña
Eñeko gogor xamarra da-ta
Iñigo biguñagoa. Seme-alaben artean
amairugarrena, semea.

Amatxok bularrrik ez da, billa dezagun beste bat:

– Ene etxeoandrea, Errasti jaun errementariak
il-berria du alabea; alboan degu ama-titia.

Errementariaren etxean azpitik ura dijoa
mogituko ba du auspoa.
Txinpartak eta zaratak
sutegiaren ondoan.

Iñigo daramate auzora
Errasti 'ren emazteak artu du altzoan:

– Galdu det alabatxoa
ibazi det beste bat,
jaun Beltran'en semea.

Granada erori da aizkenean, zabaldua errietan zear
Gaztela 'tik Euskalerrira.
Poztu da Erri-kristaua benetan,
pake-kimua erraietan...

Festak prestatu bear dira, diote danak ao-batez;
ez Loiola'n, ordea, Jaun Beltran etorri artean...

Boabil, Granada'ko erregeak negarra dario:

– Negar egizu emakume antzera
gizonki burrukan egiteko adorea
izan ez dezun orrek!
Lotsakizunez amak diotza
negarrez odoletan biotza.

Urtea pasa da luze Loiola'ko gazteluan
bertara iristerako Jaun Beltran.
Zeruak eta lurak astindu dituzte
Granada 'koa ospatzeko eta semearen jaiotza:

– Milla oillo eskaratzean,
dio bersolariak plazan,
eta amaika zezen korritu
erriko enparantzean...

Erri osoa bildu da Loiola'ko zabalgunean,
guztientzako salda ta guztientzako egaztia,
guztientzako dantza ta ttuntun txistularia.
Aztu eziñeko festa Oñaztarre aldean.

Iñigo umezurtz zazpi urte betetzean;
amaren ordez, koñata; baña
koñata ez da sekulan
ama izango.
Egun artako zauria
ez da Iñigo'ren bioitzean
bein ere sendatuko.
Eskerrak errementariñenean
baduela ama-titia.
Sukalde artan kelar artean jandako
etengabeko gaztaiñ erreak...!

Iñigo'ri aurrera doazkio urteak
badu ille-matasatxoa sudurpean,
Gaztela'tik Loiola 'ra eldu danean
eskea:

– Beltran, bidaldu eidazu semea.

Ala dio Velasco jaunak eta bere emazteak,
Iñigo 'ren amaren senitarte.

Valladolid'en Fernando Erregea geldfitu da alargun;
Frantzia'n billatu du beste bat bide-lagun.
Foix gazteluko alabea, Erregin berria Kortean.
Maite ditu jan-edanak, baita ere benetan
Jaun Velasco 'ren emaztea.

Oneri esker Iñigo'k iriki ditu Korteko atea
eta berari esker ezagutu du Erregin berria.
Carlos Lenengoa agertzean, ordea,
gauzak okertu dira Velasco'ren etxean.
Iñigo erori da langabezian.

Bi zaldi eta bosteun dukat emanez
Naparroa 'ko Erregearen Ordezkari dan
Najera 'ko Dukearengana bialdu du izekok
bere Loiola'ko illoba txikia.

Burruka sortu da bat-batean
Naparroa 'ko lurraldean:
Labrit erne bere eskubideak zaintzen
Iruña'ra dator
eta berarekin Foix'eko gudari-taldeak
Iruña menperatzera...

Iñigo'k aurpegi eman dio gogor
kañoi-bola batek
zangoa apurtu dion arte,
eta orduan, gertaera miragarria:
arri-esitik zintzilik urkatu bearke zutena,
eskuetan kontuz artu eta Loiola'ko etxera:

– Ez ninduen naparrak eramanez, ez orixe,
prantsezak izan ziran, Foix 'ko aietxek.

Loiola'koa Foix'en
aspaldiko ezaguna bait zen.

Ainbat urte pasata gero
Loiola'ko etxean berriro.
Egunak luze, gauak luzeago,
neke-oñazeak eten-gabeko.

Bare-unea eldu danean eta bere onera etorri:

– Ekarki eiazute Amadis
edo Esplandian...
– Iñigo, emen ez degu eleberririk
Santuen bizitzak baizik.
– Besterik ezean, ekarri...

Burruka sortu zaio biotzean
eta egon-eziña buruan...
Etxea laga ta or dijoa errietan zear
pobrezian eta penitentzian...

x

Ibilli zan ibilli mundu zabalean
maitasuna aldarrikatzen goizetik gabera;
aita Beltran 'ek mairuekin ibillitako jokabidea
Protestanteekin bere semeak...

Il zan aizkenean
Erroma'ren biotzean
bakar-bakarrik bakardadean
Jainko maitearen ardurapean...
,* *

Historigilleak dabilta larri
Iñigo'ren jaiot-eguna asmatu eziñik.
Ez zekiten ziur irurogeita iru
ala irurogeita bost zuenik.
Iñigo 'ren kontuekin
ez zetozen batera
erriko paperak.

Jo zuten Loiola'ra alkarrekin
eta an
errementariaren etxean
ziraun bizirik
oraindik
larogeta sei urte betetako Iñigo'ren ama-titia.

– Jakingo ote du onek Iñigoren jaiot-egunaren berri?
– Nolan ez ba, jaunak, nere, alabaren eriotza
azpimarratzen bait du Iñigo 'ren jaiotzak?
Niderlenengo frutua eriotzak eramanez
Gazteluan aizkenekoa agertu zanean.
Irurogeita batean jaio bat eta obiratu bestia
orregaitikan nintzan ni aren ama-titia.

Errementariaren emazteak
baretu zitun historigilleak:

– Granada erori aurretik jaio zan
eta ez, ondorenean.

Beltran jauna Granada'tik etorri ondoren
egin ziran ospakizunak Loiola'n.
Ospakizun oiek zeuzkan Iñigo'k buruan
etxean entzundakoak
bere jaiot-eguna ospa zutenean.

Zazpi urte betetzean
joan zitzaion amatxo zerura
eta arrekin batera
bere jaiot-eguna...

Orra nudik sortu zitzaiokean
Iñigo'ri
bere jaiotzari
buruzko naastea.

LAUAXETA'REN AZKEN-IDA ZKIAK

Aspaldion nekian Lauaxeta'k bere azken-naia edo ilburukoa idatzi ebala erderaz. Beste agiri batzuk be bai. Baiña irakurri barik neukazan agiri orreik. Felisa bere arrebeak eskuratu dautsaz eta emen daukadaz argazkiz artuta.

Ez dira beti ondo ulertzen, eskuz idatziak diralako eta argazkia bera be beti argia ez dalako, baiña al dodanik ondoen argitaratuko dodaz, erderaz dagozanak euskeratuta.

GORA JESUS!

NIRE AZKEN-NAIA (TESTAMENTUA)

Jaungoiko Aitaren, Jaungoiko Semearen eta Jaungoiko Espiritu Santuaren izenean, nire gogoia egille duanari emoten dautsat, beragan daukat neure itxaropena, Kristo'ren nekaldi ta eriotzearen irabaziakaitik. Lurrari damotsat nire gorpua, lurretik artu dalako, baiña azkenengo egunean berbiztuko nazela sinisten dot. Ni naz bizia, esan euskun Jesukristo'k, nigan sinisten dauana beti biziko da.

Ni ez naz Kristogaitik lotsatuko eta bera be nire Aitaren aintzan nigaitik ez dala lotsatuko itxaroten dot. Azkenengo egunak garratzak izan dira, baiña Jesus'eri eskiñi neutsozan, nire zenbatu-eziñeko obenak parkatu dagizan. Maria Birgiña nire Ama Deunari argia eskatu dautsat argi egin eta Kristo erakutsi dagistan. Berak poztu ninduan bere eskarrez. Bere Agurtza Santuak nire gogoia bare itzi eustan.

Eleiza Katoliku, Apostoliku eta Erromatarren menpeko seme nazanez, beronek irakasten daustan dana sinisten dot eta danean nago bere aginduetara.

Arrotasunik aundiena bere besoetan iltea da.

Satanas eta pekatu dan guztia ukatzen dot, dana eriotzea dalako.

Benetako damutasunaz, ontzeko asmo sendoaz eta oben-nekea beteteko gurariaz, nire bizitzako pekatu guztiak autortzen dodaz.

Neure guraria da, il baiño lenago, nire aingeru jagoleari, Esteban lenengo martiri deunari, Pedro ta Paulo deunai parkamena eskatzea, zor neutsen besteko one-raspena izan ez dautsedalako.

Nire aberrikide guztientzat Jaungoikoaren argia opa dot, izan daitezela Jesus'eri begira zintzoak, Ebanje-

lioia jarraitu dagiela, bere irakatsien bidetik joan daitezela.

Erriak ezin gaizkatu leitekez, ebanjeliotik kanpoan.

Biotz-biotzez parkatzen dautset nire arerio guztiai eta auxe eskatzen dautsat Krsito'ri: Eurak ni epaitu naben baiño biotz obeaz epaitu dagizala. Auxe da nire aolkua: alkar maitatu zaitetzela eta guda anker oneri azkena emon dagitsezuela.

Ni euskal-abertzalea nazelako, zori txarreko erri au biotz-biotzez maite dodalako ilten naz. Jaungoikoaren ontasunean ustea daukat, beronen seme errukarri onek beronen egunetan ikusi nai izan ebana, lortuko dala.

Nire adiskideai, nire arimearen alde otoitz bat eskatzen dautset. Ezertan gaizpide izan ba'naiake, parkatu dagistela eta jakin dagiela edozein pekatu ukatzen dodala.

Adiskideok, bizitzan maite izan zaituet baiña geiago maitatuko zaituet zerutik.

An itxaroten zaituet, Jaungoikoagan, an ez dago ituntasunik, gaiztakeririk (?), argitasunen betiko argia ta ondasunak baiño. Nire liburuetan pekatu bide danik ezer ba'lego, auxe eskatzen dautset guztiai: Jakin dagiela ezjakintasunak eraginda egiña dala. Uko egiten dautsadala.

Laster da nire azkena, orregaitik egia egiten dot bera.

Sinistu egizue Kristo, Kristo'gandik itxaron egizue, Kristo maitatu egizue.

Euskalduna (?) nire aragiaren aragia, nire odolaren odola: Euzkadi betirakoa izan bear da; baiña gu bereztat eta bera Jaungoikoarentzat.

Jarraitu egiozue Maixuari.

Jaungoikoa izan beite errukitsua pekatari onegaz eta onartu begi onen oparia. Jesus atzo, gaur eta biar, beragan eta berak ber-erosiak gara.

Aintza Irutasun Guztiz Deunari eta esker guztien bitarteko dan Maria'ri.

Urkiaga ta Basaras'tar Esteban'ek
Gazteiz'ko espetxean, su-ikilluz illa izan zan gau beratan. Kristo, erruki zakidaz!

Itzulpena
OLAZAR'tar Martin'ek

GURASO TA ANAI-ARREBA MAITEAI

Zuen semea edo anaia edo nebea dan Esteban'ek bedenikapena emon eutzuen eta zuek poztuteko eskatu eutsan Jaungoikoar il-aurrean.

Poz-pozik noa iltera Kristo neure ondoan dodala, zerura noa eta antxe itxarongo dautzuet, izan zaitezte kristiñau onak, maitatu egizue Jesus eta alkar maitatu egizue.

Aita, zu izan guztien babes, ama, zuk irakatsi zerurako bidea. Alejandra, Miguel, Felisa, Luzia ta Jose Martin, izan onak eta erregutu egizue nigaitik zeruan alkartuko gara-ta.

Zuen etxea iñoz ez daitela egon kurutze barik, Amabirjiña barik eta Euzkadi'ko ikurrin barik.

Biotz beroz mun emoten dautzuet eta erregutu egizue nire arimearen alde. Nik asko erregutuko dautsat Jesus'eri zoriontsuak izan zaitezten.

Agur guztioi. Jaungoikoak gorde zagiezala. Gora Euzkadi Azkatuta.

Zuen Esteban'ek

Oarra: Eskutitz au bagillaren 25'ean, goizeko 5 1/2'etan, 1937n. urtean, il baiño ordu batzuk lenago idatzia da. (Itzulpena).

PAGALDI ETA BARRAINKUA'tar Julio'ri

Nere Julio ona:

Aberriaren alde iltera noa eta neure areioai parkatzen dautset. Kristo ona izan da zure Esteban'egaz, bere grazia emon dautso-ta. Nik eskatzen dautzudan azkenengo mese-dea auxe da: Kristiñau on bat izan zaitezela.

Ezkondu egin bear zara eta nire izena ipiñi lenengo semeari. Bizitza-denporan benetan maite izan zaitut, zintzoa izan zaralako, eta orain geiago maite zaitut. Zeruan itxaroten zaitut eta asko erregutuko dot zure alde.

Egiozu ikustaldi bat nire amari eta emon mosu bat nire izenean.

Agur. Julio, betikotasunera arte.
Besarkatzen zaitu.

Esteban'ek

(Ingi txiki-txikiaren atzean auxe diño: Etxebarrieta Baserria
Sanionandia'tar Klaudio
Durango

Eskutitz au, beste batzuk lez, il baiño ordu batzuk lenago idatzi eban, 1937'ko bagillaren 25n. egunean (itzulpena).

B.B.B.'eko

LENDAKARI JAUNARI

Adiskide maitea:

Nire bizitzeari ordu gitxi geratzen jakoz, eta nire itxaropena dan Kristo'ren aurrean, zuri esangitzarako ziña egin eta Euskadi'gan daukadan uste ona agertu gura

Ez egiozue bildurrik izan gorputza il al dabena, ari-meai il leikeenai baiño.

Nire Euskalerria izan daitela sinisteduna, jarraitu dagiala ebanjelioaren bidean.

Ni zoriontsua naz Kristo eta Euzkadi sinisten dodazela iltera noalako.

Gure erria Jaungoikoak maitatua da, orregaitik daroa ainbeste neke. Saria aundia izango da.

Jaungoikoagandik itxaron egizue dana eta beragan ezarri zuen uste ona.

Emakume eta abertzale guztientzat besarkada bat.
Jaungoikoagan itxaroten naukazue.

URKIAGA'tar Esteban (Itzulpena)

Birjiña Maria, egun-senti garbiak argitan
zure begien dizdiraz beteten nau.
Zelako lore-eztiak dauke gozotasuna,
zure ezpanak nire samiña mosukatzean dauken lakoa.

Birjiña Maria, zelako epai eriozkiñak
lotzen dauz arimak espetxe illunean
Zidar-aria da zure biotz biguna
eta odol barik ebagiten dau nire katea.
Miñik itxaron barik ilgo nintzake
zure ama-begikunean ikusiko ez ba'neu
askatasuna eguzkitan eta aizetxo barriaz,
orregaitik nire negarra esker biurtzen da
eta nire arimea, len latz ta lupetzetan egoana,
Jainkoarentzat betiko lore izatean, da barria.

LAUAXETA

Gasteiz'en, Karmelo espetxean idatzia. (Itzulpena)

EUS KERATZAILLEA:
OLAZAR'tar Martin

EUSKALDUNAK eta FUEROAK (I)

LEENENGO ATZALBURUA...

Itz bi... Euskaldunak - Fueroak... Ona-emen, leen eta orain ainbeste eztabaida, burruka eta arbuio sortu dituzten bi itzak... Itsurabegakeri asko esan izan ziran aurreko gizaldietan euskaldunen aurka... Eta Aimery Pico degu auetan aintzindari: eliz-gizona, eta gotzaia ere bai, askoren ustez... eta Prantzi'ko Poitou'n jaioa... Onek, isopoa artu eta ur-bedeinkatu ordez, euskaldunen-aurka bere aotik irtendako astakeriaz zipristindu zituan bazter guztiak... Compostela'ko Santiago'ra zijoan erromes 1100-garren uretean edo, eta orduan igaroko zan Euskal-erri'tik... Eta berak idatzitako "Guía del peregrino medieval" liburuxkan utzi zituan idatzirik euskaldenen eta naparren aurkako astakeririk aundienak... Eta ona-emen oietako batzuek: "Tienen un mismo aspecto y la misma calidad en comidas, vestidos y lengua... Si los vieras comer los considerarías cerdos: si los oyeras hablar, te acordarías de los perros, pues tienen una lengua del todo bárbara". Eta beste aukerak esaten dizkigu bukaerako: "El vasco silba como un milano, canta como un buho, aulla como un lobo".

1444-ko Codex Calixtinues'eri esker ezagutzen degu "Guía del peregrino medieval" liburuxka au...

Eta beste asko, eta atzerritarrak auetan geientzuek, oso jator mintzatu izan dira euskaldunetaz... Onela dio, adibidez, Pau'ko Lafond jaunak: "Euskal-erria da noski, batek amestu dezaken lurralderik ederrera"... Eta onela jarraitzen du gero: "Bai dala ospatsua eta kementsua bertakoen izakera...! Bizkorrak dira euskaldunak, biotz-aundikoak, leialak, mendikoiak eta izadi-maitale sutsuak...".

Eta ez da txikiagoa Pierre Loti'k agertu zuan Euskal-erria'renganako maitasuna... Naiz-eta berez Rochefort'en bizi, Ascain'en idatzi zuan "Ramuntxo" bere ele-berri famatua... Eta bere burua gaixorik eta gazki ikusi zuanean, Hendaya'ra ekarri zezatela eskatu zuan "Euskal'erria'ri agur egiteko"... Eta Bidasoa-ertzean zeukan Bakarbide etxetxoan il zan 1923-ko Ekaina'ren 11'an... Bertako arresi-gaiñean zegoan etxetxo au...

Arturo Campion... Eta zer esan Arturo Cam-

pion'i buruz...? Berak argitzen digu ondoen zernolakoa dan euskalduna... Baiñan ezin gorde du ere, bere barnean sentitzen duan naigabea, euskaldun ori ez dalako gauza izan, berak amestu zuan "Euskal-Aberri" ori egia biurtzeko: "Desde las orillas del Adour y del Nieve, desde sus costas del Cantábrico hasta los Pirineos de Jaca y del Bearn, y desde los campos de Nájera hasta el borde extremo de las Encartaciones vizcaínas, había más que suficiente asiento para que un pueblo como el pueblo euskaldun afirmase y mantuviera una potente personalidad nacional..." Baiñan ez zuan bere amets au egia bihurturik ikusteko zorionik izan... Baiñan iñork ez-bezela adierazten digu berak ala ere, euskalduna zernolakoa dan bere akats eta on guztiakin: "Es cauto, circunspecto, receloso entre los extraños, cultivador perseverante de su bienestar, muy reservado en sus cosas íntimas, afable, cariñoso y servicial en el trato ordinario de la vida, propenso a terrible cólera cuando gravemente le vulneran o amenazan su honor, afecto y hacienda. Vengativo, tenaz en sus enemistades, terco en las disputas y decisiones.... A malas, malo. Valiente, impávido ante el peligro inminente, de genio guerrero, pero no militar, las batallas sí, el cuartel no"... Eta au esaten digu, esandako guztien laburpen bezela: "La cabeza del vasco es como la del Bretón, dura, sagaz y valiente".

Eta aipa dezagun ere, Euskal-erria'z mintzatu ziran ainbeste atzerritarren artean, Victor Hugo... Ez da erreza, onek, itz gutxietan egin zuan Euskal-erria'ren goralpena baño aundiagorik egitea: "Quien ha estado en el País Vaso, quiere volver".

Euskaldunon Fueroak... Euskaldunon-aurkako gorrotoa emendik dator batik-bat: euskaldunok "lege berezi" batzuek izan ditugulako beti, eta "zerga batzuetatik aske" bizi izan geralako errege-mesede (privilegios) batzuei esker... Eta "lege berezi" eta "mesede" aukerak, Yanguas'ek dion bezela askoren bekaizkeria sortu zuten, eta "aginpide-orokor-berdin bat" eskatzen asi ziran...

Au utzi bait-zuan idatzirik II-Felipe'k bere testamentuan: "Estimo mucho a los Vizcaínos (Vascos) y les conservo en sus libertades y fueros, porque son muy leales y fidelísimos vasallos y necesarios para la conservación de la monarquía".

Aaztu egin dute askok ordea, II-Felipe'ren aolku au, eta iñungo begirunik-gabe ekin diote euskaldunon "askatasun orren" eta "fuero oien" aurka...

1937-garren urtean, urrutira joan gabe, kendu zitzaizen Gipuzkoa'ri eta Bizkaia'ri betikoa zuten "Concierto Económico a" (zerga ituna) euskaldunon Fueroetatik gelditzen zan azken aztarna... Eta audana, Franco'ren eraso onartu ez, eta orduko egiazko agintarien alde jokatu zutelako...

Eta orrelakoxe aldrebeskeriei esker, gorde izan dute euskaldunak beti bizi-bizi "fueroenganako" eta "aberriarenganako" maitasun sua... Eta azken 40 urte auek ditugu oraintxe esan degun onen lekukorik zintzoenak...

Cadiz'ko korteak... Euskaldun-fueroen aurkako eraso Cadiz'ko Lege-Biltzarrean asi zan 1812-garren urtean... Onela baitdio Susaeta'k: "El primer verdugo de los Fueros fue la Constitución votada en Cádiz ese año".

Orregaitik, eta VII-Fernando il zanean, barruko indar batek eraginda bezela, jaiki ziran orduko euskaldunak. Edo-ta Susaeta'k esaten digunez: "Se inició el alzamiento carlista en las Vascongadas y Navarra...". Ondo bait-zekiten orduko euskaldunak II-Isabel, VII-Fernando'ren alaba errege jartzen ba'zan Cadiz'ko "Constitucion-en" alde jokatuko zuala eta euskaldunen Fueroen aurka...

Llorente jauna... Ez dakigu zergaitik... Baiñan izan zan, euskal-Fueroak begi-onez ezin ikusi zitualako-edo, bere egiteko nagusia euskal-Fueroen aurka alegiñak-egitea izan zuan gizon bat: Errioxakoa zan bera eta Llorente zuan bere abizena... Leen uste izan zan Godoy'en aginduz egiten ote zituan Llorente'k lan auek, gaur ordea (1991) alderantziz zala, esaten digu Fernando Sebastian'ek: Llorente bera izan zala, alegia, bere "Noticias Históricas" lana Pakearen-Printzearen (Godoy'en) eskuetan ipiñi zuana 1795-garren urtean... Llorente'k, liburu ontan, elburu au izan zuan bakar-bakarrik: euskal-fueroak jorratu. Eta ortarako au azaldu nai izan zuan batik-bat: euskal-fueroak erregeen emaitzak zirala, eta ez erri batek bere-bereak zituan "lege berezi batzuek", naiz-eta euskaldunak ala uste izan. Eta pentsakera ortatik atera leiken ondorengo bakarra auxe da: errege batek erri bati emana, beste errege batek kentzen baldin ba'dio, ez diola orrekin iñungo kalterik egiten erri orri...

Llorente'ren egiteko bakarra auxe izan zan bada: Euskal-erria'ri bere fueroak kendu zezaizkioten, ale-

gin guztiak bere aldetik egin... ! Orrelakoxea bait-zan euskal-fueroentzat zuan gorrotoa...

Mindu baten oiva... Eta atzalburu au Rafael Navascues'ek, 1850-garren urtean egin zuan oiuxelebre onekin bukatu nai degu: "¿Qué es del privilegio solar de Vizcaya y de sus ponderados Fueros...? Si es que algunos tienen, eran muy inferiores a los de un pueblo de Castilla... Todavía hoy se atruenan los oídos con las exclamaciones de tan privilegiados Fueros....."

Chalbaud'en bi itz auek naikoak izan ziran Navascues au ixil-erazteko: "Exclamaciones vacías de razón y henchidas de confusiones...".

Beretzako eta guretzako ain-mingarria dan aitor-men au ere, egiten digu Campion'ek bere aldetik: Naparrak izan zirala Naparroa'ri kalte egin ziotenak, eta naparrak izan zirala ere, euskera Naparroa'tik baztatu zutenak...

Izango zan gure artean ere, Euskal-Fueroen etsai agertu zan bat edo beste, baiñan kanpokoak izan ziran geienetan, etsai auek, oraindik-orain aipatu degun Llorente zan bezelaxe...

**Donato Arrinda
Anastasio Albizu**



BATASUNA

Batasuna aotan maiz.

Batasunez ao bete. Batasuna zer dan katedratik epaitu. Batasun aldekoa edo aurkako zein den dekretatu itz biribiliz.

Amaika orrelako bada gure errietan

B i tartean...

Batasunaren aitzakiarekin, Teknikaren aitzakiarekin gaztelera-itzez Euskera bete. Euskeraren iturburu jatorrera jo gabe...

Baserriak ez omen du gaurko teknikaren itzik.

Nik ez dizut orretan erantzungo. ez bai bakizkit baserriarrek dakiten itz tekniko guziak... Itz zaarrei askotan erantsi zaizkie esan-nai berriak ere... Bide guziak erabilli bear litzazke gaztelera jo baiño leen. Edo griegotik denak artu.

Zergaitik?

Euskaldunak erdibi gaudelako.

Egoaldekoak gaztelaratik artzen dabenez itz bakoitza, itz arrotza izan-^eo da gaztelera ez dakiten euskaldun iparraldekoentzat... Aiek prantzetatik artzen dituztenak ere guretzako arrotza, kanpokoak dira.

Orra nun batasuna aotan dariola, gaztelarako itz bakoitzakin BATASUNAREN AURKA jokatzan degun, naiz eta geuk epaitu zein dan batasunaren aurkako.

Jatorrizko itzak billatu, aztertu, denak ikasitakoan orduan esango didazu euskeraz itzik dagoen ala ez. Ta orixe da BATASUNAREN ALDEKO bidea. Sustraietan jotzen bai degu alkar euskaldun guziok.

Euskeraz axaletik ikasi. Erderaz pentsa. Bizpauru bat itz salsa guzietan naastu... ta idatzi Euskeraren batasunaren alde eten gabe... Naiz eta Euskera zatitu ta Euskeraren mamia uztu.

Gaztelarako itzak eta gaztelarako joskerarekin Batasunaren ikurriña jaso gure lanak ikusi ditzaten mundu guziak.

Ta Euskera garbi batean ta al dan jatorrenean idazten saiatzen dana, mundu aurrean salatu:

– Ori Batasunaren kontrakoa dezu.

– Zergaitik ba'?

–Izki bat erabiltzen ez dulako.

– Besterik gabe?

– Naikoa dezu ori. Ori bai da Batasunaren bandera.

Beste gabe joan zait arro-arro ta segurantzarik galtzeke.

Pekatori nauzu ez bai dut H'rik itsumustuka artzeko gogorik... Batasuna maite dut, nortasunik galtzeke...

Batasuna maite dut, baiña nun dago batasun ori...? Funts (fondo, bondo), funtsetan, finkatu (hincar), frogatu (probar) ta oien antzeko itzak erabiltzea H'rekin nahasian?

Funtsezko batasuna billatzeko obeto oiñarritu bearko degu, itz jatorren billa joanik... Batasuna gerturago dago itz jatorretan, erderatik (naiz frantzesera, naiz gaztelaratik) artutakoetan baiño...

Oiñarrietan. funtsetan, fundamentuetan batasuna dago geienetan: zenbat eta oiñarrituago, ainbat eta batasunetik gerturago...

Orretan dudarik ez dut.

Zalantzarik ere ez.

Ifarraldeko euskaldunak frantzesekin izan dituzten beuren artu-emanak eta andik artu dituzte zenbat itz erderazkoak...

Egoaldekoak Gaztelakin: eta andik artu dituzte beuren erderakozkoak...

Orra gaur eguneko desberdintasunaren sustrai garrantzizko bat...

Ori baiño aundiagorik ba da besterik?

Ta zorioneko batasun ori Ifarraldeko frantzes kutsuzko itzen bidez egin bear al degu? Frantzeserik sortutako itzak guri erantsita? Zenbat

batasun izenezko idatzi irakurri ezkeror ez dezu beste gauza berririk ikusiko... Ori bai, F eta H'dunak al ba da...

Frantzesetik ekarrita ala bertan dauden itz jatorrak billatu ta erabillita?

Emen bertako erdera-motoilloa erabillita, ala euskera jatorraren billa joan da?

M*r

Denok nai degu batasuna... baiña, H batekin, frogatu, finkatu, futsetan eta beste oien antzeko frantzes itzak egoaldera ekarrikin bakarrik ez degu batasunik lortuko... Batasun jatorrik, beintzat.

Sustraietan ba dirau oraindik Euskeraren batasunak, ez, baiña, aizkeneko adarren ostoeetan... Ta bere burua batasun aldekotzat jotzen duten batzuek ikusten dituguz, aizkeneko adarretako itz bizpauruekin beuren euskal-soiña jantzirik, batasunaren ikurriña aintzinean daramatela, batasuna lau itz frantzesekin eginda ba'lego bezela...

Goazen bai batasunera.

Baiña bide onentxoan aukeratu ditzagun aurretik... Lau itz idatu oiekin ba'goaz arro-arro beste guziak menperatu bearrean; gure bidetik ez dijoanari gatza ta ura ukatu bearrean... ez dakit ze batasun-klase egingo degun.

Esango didazu orretan bakarrik ez dagoela batasuna... Baiña ezin ukatu orde, bide ortatik nabarmentzen dala zenbaiten batasun-zaletasuna...

Ze batasun'?

Bi bokal tartean H'k jartzen dituan batasunena?

Bete zazu lege ori itzez-itzez eta ikusiko dezu ze idaz-molde ateratzen dezun...

"Euskaltzaindia" izena eskribu zazu erregela orretan ta ikusiko dezu ze "Ehuskaltzabindiha" aterako za zun...

x~*

Zenbait gauzetan bizkaitarrak Lapurditik gerturago daudela iruditzen zait. Gipuzkoatik (batez ere Gierriko euskaratik) baiño...

Zergaitik ote?

Biak erderakin muga luzeak izan dituztelako edo...?

Gipuzkoa (batez ere Goierri) egon da erdirago gorderik; kutsu oie-tatik urrutirago... (Gaur ez: gaur denok gaude kutsututa, birikietan artzen degun aizea ere erdalduka bai da...). Baiña, mende luzeetan ez da orrela izan... Latiñak berberak ere kutsu geiago utzi zigun Euskalerriarren ertzetan Gipuzkoa-barruan baiño (emen ez diralarik palta, bi itz datozkit bat-batean burura: "Berba" ta "jela" ta bi itz oiek ez dira Goierrian erabiltzen...). Biak dira latiñak: zuk dakizunez "verba" itzak latiñez, ta "gela" isotzak, bat baiño geiago diranean...

Alaz ere, joskera jatorrak ba dira Bizkaian Goierrian ez bezela: esate baterako, Lekeitio esan oi da "ibilli nabill" asko zabiltzela esateko, Goierrian erabiltzen ez dana... Esan bearra dago Lekeitio ez dagoela Bizkaiko kanpo-aldeko ertzeetan "kaballua" ta "bentania" esan arren...

Emen batasunaren gauza ez dago ain erreza.

Ez da naikoa Bizkaitik Lapurdira pasatzea, itsasotik pasatzen ba gera...

"Sustrai Billa" asi bearko Larresorok egin duen bezela... Orixen jotzen dut nik, bw¹u-bide onetan, gauzarik interesgarrienetako bat... Nik neuk interesik aundienak jarriko nizkioko: ez naiz, orde, neure buruakin geiegi fiatzen, ez bai nuen Euskerarik titiakin batera edoski.

Dana dala, ekin diogun guziok lanari, alkar mutur-joka gabe. Ez du lan au batek bakarrik egingo.

Ez da bik ere.

Baiña, askoren artean. bakoitzak bere bultzadaxoa eman da, aurre-ra joango da batasuna bere bidean.

ANES
(1971)

AUZI GOGORRAK ITXASOETAN

ITXASOA ETA BURU-AUSTEAK

Azpaldian zirri-zarra asko dabil itxasoan eta ez beti uren ibillera eta joaldietan.

Oraingotan fletan baltza izan da arrantzalienen kezka. Eta fletanagaz lotuta Kanada'ren jokabidea.

Egia da joaldi orrek galiziarrei ikutu dautsela geienbat, baiña gaur itxasoetako gertaerak zuzenean ez ba da albotik itxasertz guztiari ikutu eta zotin eragiten dautse. Arrain auziari lotuta, txalopen gain, beste erakunde asko agertzen diralako, merkataritzza, langintza, garraio eta abarretan.

Fletanaren gain or egon da onuntzago, guri bizi-bizi ikututen dauskun antxoaren auzia.

Geroago Marrokoen eskabideak aizetuko dira edo ta arabiarren kolkoan agertu leikezanak. Edo ta Irlandaren itxasertz batzuen eta bakallaua eta Noruegarena.

Eta bolantak.

Edozetara be azpaldian itxasoa eta bere ingurua, bare baiño ekaitzez sarriago ikusten dogula eta ikusiko dogula.

ZER DA FLETAN-A?

Askok, geienok, oraintsu arte, izen ori ia entzun be ez dogu egin arratzuen artean.

Len, bere ezaugarritzat, geiago erabilten zan *palmeta* edo *alibut* deitura.

Egia da emengo arrasteruak iñoiz ekarten dabezala 40/50 kilo inguruko fletan baltz batzuk, baiña gure portuan kanporako freskoan saltzen dira eta guk, tartetan ikusi baiño ez dogu egiten arrain zatar, itxusi ori.

Arrain zapala da, itsusia benetan. Ur otzak eta sako-nak maite dauzana. Itxasoetan milla metrotan edo sako-nago ibiltzen dakiana.

Igilari makala dala esaten da.

Arrak, berez, metrotik berako luzerakoak izaten dira, baiña emeak metro ingurura elduten dira.

Pixuz be arrak-zortzi amar kilo inguruan ibiltzen ba dira be, emeak ogei ingurura elduten dira.

Baiña gorago esan dogunez, emengo arrasteruak ez dabe arrain au asko ekarten, atzaparrekin kontatzeko eran baiño, eta 40/50 kilo ingurukoak ikusi izan doguz.

Ainbesteko izanaz, ez da gure plaza eta merkatuetan freskoan saltzen, orretarako zer kendu eta zer galdu asko eukiko leukelako.

BERE BALIOA

Fletanari balioa emoten dautsana, beste arrain fiñen antzeko edo itxura emon al izatetik datorkio. Edo beintzat itxuratu leikezan beste orreik diralakoan jan leikelako.

Orrela gertatzen da errebolu edo ta linguaduagaz parekatzen dabenean, serra edo filete eratsuetan ebagi, izoztu, eta izoztuen artean merkatuan saltzera ataraten danian, batek ez jakin zelako deitureagaz. Or dauka bere salmenta, ortxe baita beragaz dirutu al izatea.

Alaz eta ba dira diñoenak arrain leloa dala, koipe zatarrekoa eta igarri egiten jakola besteengandiko alde-rantzia.

Baiña orretan arrain motak ondo ezagutzen dabezanak izan bear dira, edo ta gure artean esaten dan lez ao edo moko fiñak.

Erosten dabeneak eta bere merkatariak be esaten dakie, beragaz dirua atarateko era ortxe dagola.

Itxuraz japoniarrak dira arrain onen eroslerik ugari eta zaleenak eta bildurretan dagoz bera gertuten dabeneak eta saltzen dabeneak, japoniarren tengada orrek arrain au gure merkatuan saltzeko zail edo gaitz ipiniko ez ete dabeneak.

GAURKO ARRISKUAK


Arrantza munduan alde bateko ta besteko errialdeak dauken politika itsu ta berekorra oartu edo ezagututa, bildur egoteko da gaur fletan baltz eta Kanada'gaz gertatzen dana, biar edo etzi beste arrainen baten aitzakiz itsutasun barrien bat sortuko ez ete dan eta beti be gure inguruko arrantzale eta arrantzako bizimoduan sartuta dabiltzanen kaltetan, azken baten eta gain gaiñetik arrantzarako kai, txalopa ea erakundeak daukezanen ondasunen aurka.

Gero eta politika itsuago darabilgu, gero eta nerberekeri jokabide larriago eta mingarria izango litzake bateko ta besteko trabak dirala-ta, edo baimenik ez dagolako, eta eurak mugatzen diralako, urte buruan ainbat egunetan lotuta egon bearra.

Ori itxasoak berak daukazan asarre egunak alboan itxita, edo ta arraiñak berak arru eragiten dakiazan ez-uneak kontuan euki barik.



A. ZUBIKARAI

EUSKALDUN BARRIENTZAT




Zatitu marrazki au bost zatitan!
Baña iru lerro bakarrik egiten. Zati bakoitzean iru txakur ezberdin itzi bear dozuz.

AZALPENA



Lotu eizuz zenbaki onek. Badakizu zer agertuko dan? Egin! Eta ikusiko dozu.



Erbia, nundik nora joango da bere lekura eltzeko?

KARMELE

EUSKALERRIRA BEGIRA

Lenengo nai nire aldetik
auxe dot ene barnean,
emen, agertu dan sinismena
bizi dedilla gurean;
kristau zintzoak bene-benetan,
poztuten sinismenean,
emengo lanak amaitukeran
poza dagigun bestean.

Euskalerria gure sorterri,
seme zintzoen kabia,
bere odolak ez dau alderik
bizi-bizi ta gorria;
semeak bere alantxe dabe
edergailluzko bizia,
erri arnasaz beterik dagoz
Maitatuz Euskalerria.

Gure izkuntzak zoratu ditu
jakitun diran jendeak,
ain da ederra, ain aberatsa,
bera letz bere semeak;
jakiturizko izkuntza dala
diño e gizon trebeak,
gora euskera, gora arbasoak,
Euskadiren sortzailleak.

Eusko langille alkartasuna
oroitu nai dot lurrean,
zure legeak onenak ziran
mundu langille artean;
begira bati, Lege Zarrari
zuen lan zuzenbidean,
eta onenak izango dira
gero be aurrerantzian.

JAUN PRESTUAK


Ongi etorri jaun autatuak,
zuen etxe onetara,
orma barriak... atepak zabal
daukaz zuen omenera;
gizon prestuak, alan, bear dau
adiskidetasunera,
aurki barrian oiñak kokatuz
egokera ederrera.

Gure seigarren bailera onek
ba-dituz gizon argiak,
oroz goitikan bear dan legez
seme leial langilleak;
ekin ta jarrai diarduzue
urratzen jokabidiak,
argi barriak argitu daizan
kristauen burubidiak.

Kristau erriak izan bear dau
lur ontan gatz ta argia,
berau dalako mundu baltzean
Maisuaren irudia;
egitekorik neketsuena
gizonak argitutia,
zorioneko maillara doa
ortan doan izerdia.

Zeru altutik begira dago
lur illunaren sorlea,
jendea dakus arrokerizko
puts ustelez betea;
mundu orretan zabaldu bear
egiaren txinparteak,
burruka ortan agertuten da
apaiz trebien alea.


PAULIN



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa